ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2017ko ekainaren 2a, ostirala • 62 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

## NEKAZARITZA SAILA

**Arabako Foru Aldundiak eta Ozaetabasoko erkidegoak "Paderrola" dermioan partzuergoan duten onura publikoko 356 mendiaren, "Ozaetabaso" izenekoaren, baso aprobetxamendua besterentzeko prozedura irekia**

1. Erakunde esleitzailea:

a) Erakundea: Arabako Foru Aldundia. Nekazaritza Saila. Nekazaritza Zuzendaritza. Mendi Zerbitzua.

b) Espedientea izapidetuko duen bulegoa: Administrazio Kudeaketa Atala.

c) Espedientearen zenbakia: 398/17

2. Kontratuaren xedea: Arabako Foru Aldundiak eta Ozaetabasoko erkidegoak "Paderrola" dermioan partzuergoan duten onura publikoko 356 mendiaren, "Ozaetabaso" izenekoaren, baso aprobetxamendua besterentzea.

a) Gauzatzeko epea: 18 hilabete emate akta izenpetzen denetik

3. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era:

a) Izapidetzea: arrunta.

b) Prozedura: irekia.

4. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua: 2.919,00 euro (BEZa aparte).

5. Bermeak:

Behin-behinekoa: ez da eskatzen.

Behin betikoa: kontratuaren esleipenaren zenbatekoaren ehuneko 5 (BEZa aparte).

6. Agiriak eta argibideak eskuratzea:

www.araba.eus.

Kontratuaren administrazio alderdiei buruzko argibide eskaerak:

Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua

Probintzia plaza, 4, 1. solairua, 01001 (Gasteiz)

Telefonoa: 945181818. Luzapena: 52849

Helbide elektronikoa: jamurrio@araba.eus

Kontratuaren alderdi teknikoei buruzko argibide eskaerak:

Mendi Zerbitzua

Probintzia plaza, 4, 1. solairua, 01001 (Gasteiz)

Telefonoa: 945181818. Luzapena: 52108

Helbide elektronikoa: laquintana@araba.eus


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Agiriak, dokumentazioa eta informazio osagarria eta gehigarria klausula ekonomiko-administratiboen agiriaren III. klausulan adierazitakoari jarraituz eskuratuko dira.

7. Kontratistaren berariazko betekizunak:

a) Sailkapena (taldeak, azpitaldeak eta kategoriak): ez da eskatzen.

b) Ekonomia eta finantza kaudimena eta gaitasun teknikoa: ikusi administrazio klausula berezien taulako E1 eta E2 puntuak.

8. Eskaintzak aurkeztea

a) Eskaintzak aurkezteko azken eguna: iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik 15. egun naturala.

Baldin eskaintzak aurkezteko azken eguna baliogabea bada, hurrengo egun baliodunaren 14:30era arte luzatuko da epea.

b) Aurkeztu beharreko agiriak: ikus administrazio klausula berezien taulako V. puntua.

c) Aurkezteko lekua:

Erakundea: Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.

Helbidea: Probintzia plaza, 5-behea.

Herria eta posta kodea: Gasteiz, 01001

Eskaera eta gainerako agiriak postaz bidaliz gero, posta bulegoan bidalketa egin den eguna frogatu beharko da eta Administrazioaren Erregistro Orokorrari bidalketa horren berri eman telex, fax edo telegrama bidez, egunean bertan. Bi baldintza horiek bete ezean, ez dira agiri horiek onartuko, baldin eta eskaerak aurkezteko epea bukatu eta gero jasotzen badira. Epe hori igaro eta hurrengo hamar egunetan agiririk jaso ez bada, agiri horiek ez dira onartuko inondik inora.

d) Behin eskaintza aurkeztuta, oso zergati arrazoituagatik baino ezin izango du baztertu eskaintzaileak.

e) Aldaerak onartzea: ez

9. Eskaintzak irekitzea:

Erakundea: Mendi Zerbitzuaren bulegoak.

Helbidea: Probintzia plaza, 4-1-eskuina.

Herria eta posta kodea: Gasteiz, 01001

"B" gutun azala (kontratatzeko gaitasuna) ekitaldi pribatuan irekiko da, bederatzietan, Mendi Zerbitzuaren bulegoetan, eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta hirugarren egun baliodunean.

"A" gutun azala (eskaintza ekonomikoa) ekitaldi publikoan irekiko da, hamar eta erdietan, Mendi Zerbitzuaren bulegoetan, eskaintzak aurkezteko epea bukatu ondorengo seigarren egun baliodunean.

10. Bestelako argibideak: ikus administrazio klausula berezien agiria.

11. Iragarki gastuak: esleipendunaren kontu izango dira.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 23a

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*
*EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2017.06.02 05:43:39 Z